

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2861

EBAZPENA, 2016ko ekainaren 8koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2016ko ekitaldirako prebentzioko ordezkarien oinarritzko prestakuntza emateko baimenari buruzko ebazpenak argitara emateko dena.

GERTAKARIAK

1.– 2016ko martxoaren 23an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian honako ebazpen hau eman zen argitara: Ebazpena, 2016ko martxoaren 16koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2016ko ekitaldiari dagokionez prebentzioko ordezkarien oinarritzko prestakuntza emateko baimenaren eta diru-laguntzaren deialdia egiten duena.

2.– 2016ko apirilaren 25ean amaitu zen eskabideak aurkezteko epea; eta Araban 15 eskabide aurkeztu ziren, Bizkaian 30, eta Gipuzkoan 23; hortaz, guztira, 68 eskabide. Hain zuzen ere, enprekin zerbitzuak itundurik izanik, haien prebentzioko ordezkariari dagokienez akreditatutako prebentzio zerbitzuek, prestakuntza-zentroek (publikoek zein pribatuek) eta erakunde sindikalek egindako eskabideak dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoan daukate egoitza horiek guztiek.

3.– 2016ko maiatzaren 17an eta ekainaren 2an egindako batzarretan, Ebaluazio Batzordeak ebaluatu zituen eskabideak, betiere deialdiko oinarrietan ezarritako betekizunekin bat etorritz. Proposamena Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari helarazi zitzaion, hark ebazpena eman zezan.

4.– 2016ko maiatzaren 27an eta ekainaren 2an, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpenak eman zituen, 2016ko ekitaldiari dagokionez prebentzioko ordezkarien oinarritzko prestakuntza emateko baimenarenari buruzkoak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– 2016ko martxoaren 16an Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak emandako Ebazpenaren bidez, 2016ko ekitaldiari dagokionez prebentzioko ordezkarien oinarritzko prestakuntza emateko baimenaren eta diru-laguntzaren deialdia egiten da. Bada, ebazpen horren 2. artikuluan xedatzen denez, «2016ko ekitaldiari dagokionez prebentzioko ordezkarien oinarritzko prestakuntza emateko baimena lortu ostean, diru-laguntza eskatu ahal izango dute honako hauek: prestakuntza-zentroek (publikoek zein pribatuek), sindikatuek, eta, orobat, enprekin zerbitzuak itundurik izanik, haien prebentzioko ordezkariari dagokienez akreditatutako prebentzio-zerbitzuek, betiere egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badute».

2.– Aipatutako ebazpenaren 8.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, «eskabideak hilabeteko epean aurkeztu behar dira, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera».

3.– Aipatutako ebazpenaren 9.1 artikulua hau xedatzen du: «Ikastaroak emateko baimenari dagokionez, Osalaneko zuzendari nagusiari dagokio ebazpen honetan araututako deialdia ebaztea, Ebaluazio Batzordeak proposamena egin ondoren.»

2016ko uztailaren 1a, ostirala

4.– Aipatutako ebazpenaren 9.5 artikulua honako hau ezartzen du: «publikotasunaren ondorioetarako, prestakuntza emateko baimen-eskabideei buruzko ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira».

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2016ko ekitaldirako prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenari buruzko ebazpenak argitara ematea, ebazpen honetako I. eranskinean jasota dauden erakundeei dagokienez.

Bigarrena.– Ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du, eta beraren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Osalaneko zuzendari nagusiari hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa txandaz dagokion Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean; bi kasuetan, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Barakaldo, 2016ko ekainaren 8a.

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendaria,
IZASKUN URIEN AZPITARTE.

2016ko uztailaren 1a, ostirala

I. ERANSKINA

2016KO EKITALDIRAKO PREBENTZIOKO ORDEZKARIEN OINARRIZKO PRESTAKUNTZA EMATEKO BAIMENAK ONARTZEN DITUZTEN EBAZPENAK

1.- BIZKAIA

Entitatea	Eremua	Prestatu beharreko prebentzioko ordezkariak (POak)
Centro F. P. Ibaiondo, S.L.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Fondo Formación Euskadi, S.L.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Formalia Gabinete, S.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
CIFP Bidebieta LHII	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
IES Construcción Bizkaia BHI	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
CIFP Repelega LHII	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
IMF Formación	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
IMQ Prevención, S.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Instituto de Formación y Estudios Sociales- IFES	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Instituto de Formación Práctica de Riesgos Laborales (IFPRL), S.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Integra Soluciones Empresariales, S.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
CIFP Iurreta LHII	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Juritecnia, S.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Konectia Servicios Integrales, S.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Escuela Profesional Comarcal Lea Artibai, S. Coop.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Nuevas Promociones- Gorapen Berriak, S.L. (UP Formación)	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Oblomov S.L. (C2B)	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Sdad. Coop. de Enseñanza Zabalburu	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Servicio de Prevención Segurtek, S.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Centro de Estudios Almi	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
CIFP San Jorge LHII	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Grupo 2A Gestión y Formación, S.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Urko Servicios de Prevencion S.Coop.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Comisiones Obreras (CCOO)	- Araudia	Denak
Eusko Langileen Alkartasuna (ELA)	- Araudia	Denak
Ezker Sindikalaren Konbergentzia (ESK)	- Araudia	Denak
Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB)	- Araudia	Denak
Langile Sindikal Batasuna - Unión Sindical Obrera (LSB-USO)	- Araudia	Denak
Union General de Trabajadores de Euskadi (UGT)	- Araudia	Denak

2016ko uztailaren 1a, ostirala

2.– ARABA

Entitatea	Eremua	Prestatu beharreko prebentzioko ordezkariak (POak)
Fundación Diocesanas- Jesús Obrero Fundazioa (EGIBIDE)	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
CFP Servicio de Prevención , S.L. (CENFORPRE)	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Einber Prevenalia, S.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Fondo Formación Euskadi, S.L.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
CIFP Construcción LHII (ERAIKEN)	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
IMQ Prevención, S.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Instituto Europa SL	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Instituto de Formación y Estudios Sociales- IFES	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Urko Servicios de Prevención S. COOP.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Comisiones Obreras (CCOO)	- Araudia	Denak
Eusko Langileen Alkartasuna (ELA)	- Araudia	Denak
Ezker Sindikalaren Konbergentzia (ESK)	- Araudia	Denak
Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB)	- Araudia	Denak
Langile Sindikal Batasuna - Unión Sindical Obrera (LSB-USO)	- Araudia	Denak
Union General de Trabajadores de Euskadi (UGT)	- Araudia	Denak

3.– GIPUZKOA

Entitatea	Eremua	Prestatu beharreko prebentzioko ordezkariak (POak)
Asociación Pedagógica Mendibil	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
CEI Formación y Asesoramiento Empresarial, S.L.U.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
CEI Servicio de Prevención S.L.U.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
CFP Servicio de Prevencion, S.L. - CENFORPRE	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Einber Prevenalia, S.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Fondo Formación Euskadi, S.L.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Fundación para la Formación Técnica de Máquina Herramienta	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
HLBHIP-CPEIPS Irungo la Salle	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
CIFP Meka LHII	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Instituto de Formación y Estudios Sociales- IFES	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
IMQ Prevención, S.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Nazaret Fundazioa	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Osarten koop. Elkartea	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Prebank Servicio de Prevención Ajeno S.L.	- Araudia (Afiliatorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak

2016ko uztailaren 1a, ostirala

Entitatea	Eremua	Prestatu beharreko prebentzioko ordezkariak (POak)
Prevencilan, S.L.	- Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Siprex Prevención, S. L.	- Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Itundutako bere enpresetako POak
Urko Servicios de Prevención S. Coop.	- Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Urola Garaiko Lanbide Eskola	- Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Innovación y Coordinación en Estrategias Formativas (INKOR) S.L.	- Araudia (Afiliaziorik gabeko POak) - Arlo teknikoa	Denak
Comisiones Obreras (CCOO)	- Araudia	Denak
Eusko Langileen Alkartasuna (ELA)	- Araudia	Denak
Langile Abertzaleen Batzordeak - LAB	- Araudia	Denak
Union General de Trabajadores de Euskadi (UGT)	- Araudia	Denak